Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2023-07-05(e)(a)n, OSOKO BILKURAk erabagi hau hartu dauela:

## 6.- OSOKO BILKURARI LAGUNDUKO DION KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA IZENDATZEA.

### Xedea

Osoko Bilkurari lagunduko dion Kontratazio Mahai Iraunkorraren izendapena

### Aurrekariak

Lehena.-2023ko ekainaren 17an Udal Korporazio berria eratu zen, udal-hauteskundeak izan ondoren.

Bigarrena.-Aurrekoaren ondorioz, Osoko Bilkurari lagunduko dion Kontratazio Mahai Iraunkorra izendatu beharra dago, bere eskumeneko kontratazio prozeduretan jarduteko.

### Oinarri juridikoak

Lehena.-Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikuluaren arabera, administrazio publikoen kontratazio-organoek kontratazio mahai baten laguntza izango dute hainbat lizitazio prozeduretarako.

Bigarrena.-Toki administrazioen kasuan, aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarriak arautzen du kontratazio mahaien osaketa, hurrengoa adieraziz:

*"Kontratazio-mahaiko burua udalbatzako kide bat edo funtzionario bat izango da; mahaikide izango dira udalbatzako idazkaria edo, hala behar duenean, udalbatzari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo, kasua bada, kontrol ekonomikoaren eta aurrekontukoaren gaineko eginkizuna esleitua duen organoaren titularra, bai eta, karrerako funtzionarioen edo udalbatzaren zerbitzura ari diren langile lan-kontratudunen edo zinegotzien artean kontratazio-organoak izendatutako beste batzuk ere; kopurua, guztira, ez da hirutik beherakoa izango. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago."*

CSV: 07E7000D17C800K7E2O7R9E3D1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000D17C800K7E2O7R9E3D1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/07/2023
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/07/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/07/2023 14:15:45

EXPEDIENTE :: 2023IDA_DEK0807
Datea: 19/06/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Hirugarrena.-Era berean, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.4 artikuluak dio kontratazio mahaiko kideen izendapena iraunkorra izan daitekeela edo kontratu bakoitza esleitzeko modu berariazkoa. Halaber, mahai iraunkorra denean, edo hainbat kontratutarako funtzioak esleitzen zaizkionean, haren osaera Estatuko Aldizkari Ofizialean, Autonomia Erkidegoan edo probintzian argitaratu beharko dela esaten du, Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegokoa edo tokikoa den kontuan izanda.

Laugarrena.-Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarriak ezarritakoarekin bat etorriz.

**Erabakia**

Udal Osoko Bilkura honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.-Osoko Bilkurari lagunduko dion Kontratazio Mahai Iraunkorraren izendapena onestea, ondoko kideez eratuta egongo delarik:

- Mahaiburua: Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikaria edo legez ordezkatzen duena.
- Kideak:
  - Korporazioaren Idazkari Nagusia edo legez ordezkatzen duena.
  - Udaleko Kontu-hartzailea edo legez ordezkatzen duena.
  - Kontratua sustatzen duen arloko teknikaria edo, bere kasuan, horretarako izendatzen den teknikaria.
- Idazkaria: Idazkaritza Saileko administrari laguntzailea, edo, bere kasuan, ordezko izendatzen dena.

BIGARRENA.- Osoko Bilkura kontratazio organoa den irekitako espedienteetan kontratazio mahaiaren aldaketa onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

LAUGARRENA.-Akordio hau udaleko sailburuei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespenaren menpean dagoela

CSV: 07E7000D17C800K7E2O7R9E3D1

| Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.<br>Kodea:<br>07E7000D17C800K7E2O7R9E3D1 | Sinadurea eta datea<br>JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/07/2023<br>NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/07/2023<br>CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/07/2023 14:15:45 | EXPEDIENTE :: 2023IDA_DEK0807<br>Datea: 19/06/2023<br>Lekua: Bermeon<br>Erregistro unidadea: Erregistro nagusia |
|---|---|---|

ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikuluaren arabera), Nadia Nemeh Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

*Orri-oinean sinatzailea eta data*

CSV: 07E7000D17C800K7E2O7R9E3D1

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000D17C800K7E2O7R9E3D1

Sinadurea eta datea

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 05/07/2023
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/07/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/07/2023 14:15:45

EXPEDIENTE :: 2023IDA_DEK0807

Datea: 19/06/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia